

## Antxiñako fotografixak


### Manuel Umerez eta Olabarrietako Arrazola Azpikua



**B**enetan kuriosua da oñatiarrez idatzitako bi manuskrito inportantiaren historixia. Berez titulu luziagua euki arren, laburtuta holako izena dakoi euskerazko lan horreik: *Errectore Jaun baten instruccinuac* eta *Osaba baten intstruccinuac*. XIX. gizaldiko lehenengo urtietan, 1805 inguruan, moldautako bi lan horrein ibilbidia korapilotsu samarra suertau zan. Egillia Goribar auzoko **Goribargoitti** baserriko semia izan zan: **Manuel Umerez Agirre** abadia (1757-1818); hau hil zanian, bere illoba **Juan Jose Umerez Billarren** (abadia hau be) eskuetara pasau zan; eta azkenik, **Pedro Arrazola Umerezek** jaso zittuan. Pedro be

elizgizona zan, Olabarrietako **Arrazola Azpiko** baserrikua eta bere ama Goribargoittikua, Juan Jose abadiaren arrebia. Hau da, manuskrituairi dagokixenez, osaba-illoba abadien arteko transmisioña egon zan. Hirurak jardun euen aldi desbardiñetan Oñatiko San Migel parroixan. Horrenbestez, Goribargoittin sortutako lanak urte batzuk beranduago Arrazolan gorde ziran.

Olabarrietako etxe horretan topau zittuan idazkixok 1930 aldera **Jose Adrian Lizarralde** Arantzazuko frantziskotar eta historiadore ezagunak. Harrezkero gorabehera asko euki euen Oñatiko euskeriaren azterketarako hain inportantiak diran dokumentu honeik. Dana dala, horren gaiñeko xehe-tasunak aldizkari honetako beste orrialde batzuetan be eskintten diranez, eztoqu hemen horren barri emungo. Bai, ostera, Arrazola Azpiko baserrixari buruzkuak. Jakiña da aspaldiko oiñetxia dala Arrazolaterrena. Gutxienez XV. gizaldira orduko, Olabarrietan eta Oñatin ondo zuztartetako abizena zan. Olabarrietan **Arrazola Garaikua** eta **Azpikua** baserrixak ezagutu dittugu aspalditxotik. Azpikuak gaur egunian baserri itxurarik ezpaldinbadako be, sasue batian ezkerreko argazkixan dakon tankeria eukan: Oñatiko eta inguruetako beste baserri askoren bi uretako teillatudun eraikuntza batena.



Noiz aldatu xakon Arrazola Azpikuari itxuria eta egitturia? Ba, 1923 aldera. Orduan hartu eben orain agerketan doskun irudixa. Oñatiko beste hamaika etxe eta obretan letxe, Kale Zaharreko **Damian Lizaur Lasa** arkitekto gaztia izan zan aldaketa sakon haren arduraduna, zortzi-beratzi urteko lanen ondoren. Baserri-baserri izatetik etxe dotoriagua izatera pasau zan, kanpotik nahiz barrutik. Hori bai, aurretik eukan familixiaren armarrixa ezarri xakon. Beste aldaketatxo bat be aittatu gura neuke: Manuel Umerez idazliak berez **Agirre** eukan bigarren abizentzat; baiña Oñatiko San Migel parroixako eliza-liburuetako agirixetan sarrittan firmau eben **Manuel Umerez Goribargoitia** moduan, bere sortetxiari inportantzia emun guran-edo.

J. E.

Baserri zaharreko argazkixa Jose Ramon Arrazola Urkiagak eskuratu dosku. Argibide batzuk be bai, Jose Ramon Arrazola Pagolarekin batera. Milla esker olabartar bixoiri!